# ¡RAKURRI, ETA ONDO PASA!




## MARTINBER ETA LAGUN • Kultura

## Irri gehiago 2013an

Urte berri, irri berri. 2013a hasi berritan, irri egiten jarraitu nahi dute Irrien Lagunak klubak eta *Irria* aldizkariak. Horretarako, irakurleek ere irri egiten jarraitzea behar dute, eta, bide batez, irri horiek inguruan zabaltzea.

Bi urte bete berri ditu *Irria* aldizkariak, eta orain arte alboan edukitako lagun guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, haien irriak ezinbestekoak direlako. Aurten era berean jarraitzeko, bi proposamen egin dituzte.

*Irria*-ko harpidedunek harpidedun berriak eraman ditzateke, haiek ere irri egin dezaten. Erakarritako harpidedun bakoitzeko %25eko deskontua


LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Haur mordoa Irrien Lagunak egunean.

jasoko dute 2013ko harpidetzan, eta gehienez %100eko deskontua jaso dezakete –lau harpidedun berri–. 45 eurokoa izango da urteko kuota, iaz bezala, eta otsaileko lehen astean kobratuko da. Horregatik, urtarrilaren 31n amaituko da aldizkariaren eskaintza berezi hori. Baldintza zehatzak begiratzeko, bi aukera daude: *www.irrienlagunak.com/harpidetza* webgunean begiratzea edo (0034) 902-82 08 06 telefono zenbakira deitzea.

Bestalde, familia askok duten egoera ekonomiko larriari aurre egiteko, ekarpena egin nahi du *Irria*-k. Krisi ekonomikoa dela-eta harpidetza mantentzeko arazoak dituztenek haiekin harremanetan jartzeko aukera dute.

## DENBORA-PASAK

### 1. Ezkutuko izena

Lagun berri bat etorri da auzora. **Ba al dakizu nola izena duen?**

| A | D | N | N | O | I | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|






### 2. Munduari Bira





Musikazale amorratua da Aitor. Gogokoen dituenen argazkiak atera ditu. **Ba al dakizu nor diren musikariok?**

### Erantzunak

**1.-** Andoni izena du. **2.-** Elvis Presley, John Lennon eta Bob Marley dira musikariak.